

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3365

HUTSEN ZUZENKETA, honako ebazpen honena: «Ebazpena, 2014ko ekainaren 19koa, Teknologia eta Estrategiako zuzendariarena, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko abuztuaren 4ko Aginduan 2013. urterako ezarritako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duena. Agindu horren bidez, Kooperatiba Ikerketarako Zentroen kategorian kreditatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteentzako laguntzak arautzen dira. KIZ Programa».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako akatsak antzeman dira Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko abuztuaren 4ko Aginduan 2013. urterako ezarritako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duen Teknologia eta Estrategiako zuzendariaren 2014ko ekainaren 19ko Ebazpenean. Agindu horren bidez, Kooperatiba Ikerketarako Zentroen kategorian kreditatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteentzako laguntzak arautzen dira. KIZ Programa. (2014ko uztailaren 7ko EHAA, 127. zenbakia, 3038 xedapena). Beraz, zuzentzen den xedapeneko artikulua bakarrean aipatzen den eranskina argitaratzen da oraingoan, argitaratu zen eranskina ez zelako 2013ko deialdiari zegokiona.

2014ko uztailaren 24a, osteguna

ERANSKINA

Entitatea	IFZ	2013
CIC bioGUNE	G95229142	1.800.900
CIC biomaGUNE	G20788840	1.999.200
CIC nanoGUNE	G20903449	899.600
CIC tourGUNE	G20928958	699.446
CIC energiGUNE	G01241876	2.100.990
CIC microGUNE	G20840856	309.969
CIC marGUNE	G20788857	189.895